

UDALAK LANKIDETZA ESKATU DIE BILBOKO BALIOEN AGIRIAREKIN BAT EGIN DUTEN PERTSONEI ETA ENTITATEEI, GAUR EGUNGO EGOERAREN GAINEAN GOGOETA EGITEKO

- Juan Mari Aburto Bilboko alkateak gutun bat igorri die, esteka bat txertatuta galdetegi batera daramana, galdetzearren joan diren aste hauetan garrantzi berezia hartu duten balioez, eta jakitearren, besteak beste, zeintzuk izan behar duten, beren ustez, balio nagusiak datozen asteotan.
- Aburto alkateak, halaber, idazki bera helarazi die Uriko Hiri Kontseiluko kideei, proiektuaren jarraipen batzordea osatzen dutenei, hain zuzen ere.
- Galdera-sortari emandako erantzunek ematen dituzten emaitzak nahiz adingabeen sorkuntzak jendaurrean jarriko dira, egoerak aukera ematen duenean.
- Udalaren xedea da aurrera egitera balioetan oinarritutako jendarte baten moduan, eta aurre egitea osasun krisiak agerian jarritako desafio handiei, [Bilboko Balioen Gutunaren](#) 17 balioak jarduteko ardatz gisa baliatuz.
- Bilboko Balioen Gutunarekin bat egin nahi duenak www.bilbao.eus webgunean egin dezake.

(Bilbo, 2020ko maiatzaren 21a).- Juan Mari Aburto Bilboko alkateak gutun bat bidali die [Bilboko Balioen Agiriarekin](#) bat egin duten 2.000 pertsona eta 150 entitate baino gehiagori. Helburua, Aburto alkateak bere idazkian azaltzen duen moduan, Bilboren “*orainaz eta etorkizunaz*” elkarrekin gogoeta egitea da, eta “*balioetan oinarritutako gizarte baten moduan aurrera egitea eta osasun krisi honek agerian utzi dituen desafio handiei aurre egitea*”. Alkateak [Bilboko Hiri Kontseilua](#) osatzen duten kideei ere helarazi die gutun hau.

Gutunarekin bat egin duten pertsonak eta entitateek erakutsi dute balioen inguruan hartu duten konpromisoa, haiek Bilboko gizartearen elkarbizitzaren ardatz moduan hartuz, eta, hori dela eta, alkateak galdetegi bat helarazi die, gutunean bertan esteka bat txertatuta, jakin nahirik ea uste duten balioetan oinarritutako ekintzen bidez erantzuten ari ote zaion Bilbo osasun krisiari, ea zeintzuk izan diren aldi honetan garrantzi berezia hartu duten balioak, eta zein balio izango diren gakoak datozen hilabeteetan.

Horrez gain, galdetegian, halaber, galdetzen zaie zer jardun gauzatu beharko liratekeen hirian, zer ikasi den itxialdian, zer aldaketa nahiko lituzketen krisia gainditu osterako, eta zer ekarpen egin lezaketen berek hori lortzeko.

Galdetegiari emandako erantzunak norenak diren ez da adieraziko. Erantzun hauen guztien ondorioak jendaurrean jarriko dira. Interesa dutenek beren datuak eman ditzakete

foro telematiko ala presentzial batean parte hartzeko, osasun-gomendioen bilakaeraren arabera.

BILBO BALIOEN HIRIA

[Bilbao Balioen Hiria](#) proiektua parte hartzeko ekimen bat da, Bilboko Udalak sustatua, baina herritarrekin lankidetzan eraikia eta garatua, hasiera-hasieratik.

Bilbao Balioen Hiria proiektuaren helburua da uria ezaguna eta aitortua izatea ez bakarrik birgaikuntza, berreskuratze eta eraldaketa ekonomikoagatik, baita beraren balioengatik ere. Helburua da gune bat sortzea, erakundeen, era guztietako entitateen, enpresen, hedabideen, talde politikoen eta herritarren artean analisisa egiteko, hitz egiteko, hausnartzeko eta lankidetzarako.

Proiektu honen emaitza gisa, 2018ko martxoan, Udalbatzarrak Bilboko Balioen Agiria onetsi zuen, Bilboko herritarren elkarbizitzaren ardatza izan behar duten [balioak](#) identifikatuz. Uriaren datozen urteetako bizitza gidatu behar dutenak. Gainera, Udalak badu [plan bat ere agiriko 17 balioak gauzatzeko ekintzak](#) biltzen dituenak.

Bilboko Balioen Gutunarekin bat egin nahi duenak www.bilbao.eus webgunean egin dezake.

EL AYUNTAMIENTO PIDE LA COLABORACIÓN DE LAS PERSONAS Y ENTIDADES ADHERIDAS A LA CARTA DE VALORES DE BILBAO PARA REFLEXIONAR SOBRE LA SITUACIÓN ACTUAL

- El Alcalde de Bilbao Juan Mari Aburto les ha enviado una carta con el enlace a un formulario para preguntarles sobre los valores que han adquirido especial relevancia en estas semanas y cuáles deben ser los principales en los próximos meses, entre otros.
- Aburto también ha enviado el mismo escrito a las y los miembros del Consejo Cívico de la Villa, quienes forman la Comisión de Seguimiento del proyecto [Bilbao Balioen Hiria](#).
- El objetivo del Consistorio es seguir avanzando como sociedad basada en valores y hacer frente a los grandes retos que la crisis sanitaria ha puesto de relieve con los 17 valores de la Carta de Valores de Bilbao como eje de actuación.
- Quien quiera adherirse a la Carta de Valores de Bilbao puede hacerlo en la web municipal www.bilbao.eus.

(Bilbao, 21 de mayo de 2020).- El Alcalde de Bilbao Juan Mari Aburto ha mandado una carta a las más de 2.000 personas y 150 entidades adheridas a la Carta de Valores de Bilbao. El objetivo, como explica Aburto en el escrito, es compartir “*el presente y futuro*” de Bilbao y seguir avanzando como “*sociedad basada en valores y hacer frente a los grandes retos que esta crisis sanitaria nos ha planteado*”. El Alcalde también ha enviado esta misma misiva a las y los miembros del [Consejo Cívico de la Villa](#), quienes forman la Comisión de Seguimiento del proyecto [Bilbao Balioen Hiria](#).

Las personas y entidades adheridas a la Carta han demostrado su compromiso con los valores como ejes vertebradores de la convivencia en la sociedad bilbaina, por ello el Alcalde ha querido preguntarles a través de un cuestionario –cuyo enlace está en la carta remitida- si creen que Bilbao está respondiendo a esta crisis sanitaria con actuaciones basadas en valores, cuáles han sido los valores que han adquirido especial relevancia en este tiempo y cuáles son aquellos que van a ser clave en los próximos meses.

Además, en el cuestionario también se incluyen preguntas sobre las actuaciones que se necesitan desarrollar como ciudad, el aprendizaje adquirido en este tiempo de confinamiento, los cambios que desean una vez superado este tiempo y cuál podría ser su aportación para conseguirlos.

Las respuestas al cuestionario son anónimas y las conclusiones de las respuestas que se reciban se harán públicas. Las personas interesadas pueden aportar sus datos para participar en un posible foro de carácter presencial o telemático en función de cómo evolucionen las recomendaciones sanitarias.

BILBAO BALIOEN HIRIA

El proyecto [Bilbao Balioen Hiria](#) es una iniciativa participativa, impulsada por el Ayuntamiento de Bilbao, pero construida y desarrollada, desde un principio, en colaboración de la ciudadanía.

Bilbao Balioen Hiria tiene como objetivo que la Villa sea conocida y reconocida no solo por su importante proceso de regeneración, recuperación y transformación económica y urbana, sino también por sus valores. Se trata de crear un espacio de análisis, dialogo, reflexión y trabajo colaborativo entre instituciones, entidades de toda índole, empresas, medios de comunicación, grupos políticos y ciudadanía en general.

Como resultado de este proyecto en marzo de 2018 el Pleno del Ayuntamiento aprobó la Carta de Valores de Bilbao en la que se identifican los [17 valores](#) que deben vertebrar la convivencia de la ciudadanía bilbaina y que deben guiar de la Villa en los próximos años. Además, el Consistorio cuenta con un [Plan de Desarrollo de la Carta de Valores](#), para implementar acciones que materialicen los 17 valores del documento.

Quien quiera adherirse a la carta puede hacerlo en la web municipal www.bilbao.eus.